

Tanger hiria zuzenean lotuta dago etorkinekin, gizakien ametsekin. Hori dela-eta, «Tangerko ametsak» izenburua eman dio Jon Arretzek be-


re azken lanari. Nobela beltzaren eta bidaia literaturaren artean kokatutako obra honetan Tangerko koloreak eta usainak helarazten ditu.

## Jon Arretxe: «Tangerko ametsak batzuetan betetzen dira»

M. LARRINAGA | DONOSTIA

Jon Arretxeren "Tangerko ametsak" (Erein, 2011) liburuak nobela beltza eta bidaia uztartzen ditu, Arretzek ("Fatum", 2008, Elkar; "Morto Vivace", 2007, Elkar; ) landu izan dituen bi generoak, alegia. Hala, hilketez, maitasunaz, magiaz eta misterioz josita dagoen bezala, hango kolore, usain, ohitura eta bizimoduak ere deskribatzen ditu.

Pertsonaiei egiazkotasuna eman ahal izateko, Tanger bertara hainbat bidaia egin ditu Arretzek: azken urte honetan hiru alditan izan da bertan, eta kaleetan barrena ibili da jendearen jokabidea eta bakoitzaren bizitzaren historia ezagutzen: «Beti joan naiz jendearen bila, eta askorekin hitz egin dut. Mila istorio entzun ditut nobelan sartu ditudanan antzekoak», azaldu



Jon Arretxe atzo, Donostian. Gofi GARRALDE | ARGAKAZI PRESS

zuen atzo Arretzek, Donostian egin zuten aurkezpen ekitaldian.

Tanger eta Bamakon kokatzen da honakoan liburuaren istorioa, nahiz eta nagusiki Tangerren gertatu ia guztia. Hiri hau kontraste oso handiko lekua dela azaldu zuen idazleak. «Konkistatzaile guztiak pasa dira Tangertik. Hiri irekia izan da urte askotan, artisten babeslekua ere izan da, baita aberatsen parranda tokia ere. Alderdi oso berria ere badu. Badirudi Europako edozein lekutan zaudela, gainera, diskoteka oso modernoak ditu hondartzako alboan, Donostian topatzen ez diren horietakoak».

Liburuan zehar hiru pertsonaia nagusi topatuko dira. Alde batetik, Bamakon pertsona baten bila agertuko den neska zuria aurkeztuko da lehen kapituluari. Bestetik, Tangerrera iritsi den sikario bat eta kalea lantzen duen Fatima gaztea, nobelan zehar pisu handia izango duen pertsonaia. Azkenik, Moussa gaztea, Afrika beltzetik Tangerrera patera baten bila iritsi zena, baina ziria jo ziotela-eta bertako kaleetan topatu zuena bere kartzela. «Tanger kartzela da askorentzat ez baitute Europara pasatzea lortzen eta ez dutelako dirurik. Ondorioz han gelditzen dira, ez aurrera eta ez atzera. Tangerko ametsak batzuetan betetzen dira, besteetan ez».

## Julen Gabiria izan da aurten Mikel Zarate sariaren irabazle

GARA | DONOSTIA

Julen Gabiriak idatzitako "Nire aita ikusezina da" nobelak irabazi du Mikel Zarate haur literaturako saria aurten. Hala erabaki zuen Leire Bilbao, Miren Agur Meabek eta Xabier Mendigurenek osatutako epaimahaia, eta berak eramango du 3.000 euroko saria. Liburuak, berriz, udazkenean kaleratuko da.

Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak sortu zuten iaz sariketa hau Lezamako seme eta eskal kulturako sortzaile eta bultzagile handi izandako Mikel Zarateren omenez. Lehen urtean Asier Mendozoa zarauztarra suertatu zen irabazle, banpiroei buruzko "Beste gu" izeneko liburuarekin.

Julen Gabiria Galdakona jaio zen 1973an. "Conmemora gure bihotzetan" eleberria izan zen bere estreinako lana; horren ostean etorri zen "Han goitik itsasoa ikusten da". Horiez gain, hainbat itzulpen egin ditu, baita biografikiak eta antzerkirakoa lanak ere.

## KRITIKA haur literatura

### «Saguzarrak egunez»

(Bigarren) liburu gogoangarria

Asun AGIRIANO

**D**enbora batean, Euskal Herriari ilustratzaileak bakanagoak ziren; gaur, ugari dira. Arte Ederrak edota Diseinu Grafikoa ikasi duten askok, kasurik onenean, liburuak ilustratzen, egunkarietan marrazkiak egiten, kartelak eta horma-irudiak egiten e.a. dihardute. Gaurko marrazkilariek profesionalizatzeko bide zailari ekin diote. Bada, beraz, argitaletxe eta baita irakurleen aldetik ere, ilustraziogintzari kasu egiteko sasoa.


Jokin Mitxelena dugu haur-literaturako euskal marrazkilaririk ezagunena, sendoena nolabait. Esku artean dugun ipuinaren kasuari erreparatuta, egile osoa izateko premiari erantzuten ere badakiela erakutsi digu bigarren aldiz. Izan ere, lehenagotik ezagutzen genituen "Joan-joan" (Baigorri, 2002) eta "Armiarma txikia" (Baigorri,

2003), hain justu ere, egunkari honek bultzatutako Euskal Ipuinen bilduman ingelesez eta euskaraz kaleratutako liburuak. Enkarguzko lan horietatik aparte, Jokin Mitxelena ez dio izurik istorioak sortzeko prozesuari, hainbeste urtetan besteen hitzak irudikatu ostean, kontaktuzko proiektuak sortzeko beharra sentitu baitu.

Animalia bitxi batzuk protagonista, 2002. urtean, "Xaguxarrarena" izan zen idatzi zuen lehenengo liburu. Orduan, hitzak poetikoki aukeratu eta testu errimatuak aurkeztu zigan. Horrela, idazle sena erakutsiz, hitza eta irudia trebetasun handiz erabili zituen.

Liburu hartako kontakizunean, buruz behera loak hartzeko ahalgintetan zebiltzan bi saguzar genituen, Isabela eta Jenobeba. Sonoritate handiko izen xebebrek entzunda, irribarre ateratzen zaie oraindik ere haurrei.

Aurten, berriz ere animalia bitxi hauen ipuina kaleratu du. Antza, badago liburuaren mun-



### Fitxa

**Titulua:** "Saguzarrak egunez".  
**Egilea:** Jokin Mitxelena.  
**Argitaletxea:** Aizkorri, 2011.  
**Orrialde kopurua:** 36.  
**Salneurria:** 7 euro.

duari lotuta dagoen mito edo aurreiritzi ezagun bat: bigarren zatia ez omen dira onak. Topiko guztien moduan, asko du faltsutik, kontuan izanda, gainera, haur literaturako mundu txikian arrakastatsu suertatzen diren istorioak ez direla hainbeste ezagutzen, eta irakurle askok ez dakitela zein den lehenengo eta zein bigarren.

Lehenengo lan hura berdindu edo gailentzea zaila egingo zitzaion Jokin Mitxeleneri, baina, oraingoan ere, ez gaitu epel utzi.

Hegan majo ikasi ondoren, Isabela eta Jenobeba mundua ikusteko egarri dira, ez ordea gau ilunean, egun argiz baizik. Zer behar? Betaurreko beltzak jantziz gero, ederki joan daitezke airean eta, horretarako, bi saguzarrak hainbat animaliarengana abiatuko dira banan-banan galdetzeraz nola lortu antiojoak: hontza, behia, igela... Zeinek jakin, baina, betaurreko beltzak non diren? Satorrak, dudarik ez! Bide luzea egin dute, eta galdeztzen eta erantzunak jasotzen

emandako denbora horren guztiaren ostean, zer eta... ia gaua iritsi dela, nekatuta daudela biak, eta zintzilikatu eta lo gelditu direla. Oraingoan, kontakizuna ez dator errimatuta, baina elkarrizketaren ateraldi xebebre bitartez, erritmo bizia lortzen du Mitxelena. Egilea marrazkilaria den aldetik, adibidez, betaurrekoak eta koloreak lotzen ditu. Ez da kasualitate behiak betaurreko berdeak behar dituela soilik, jollara ondo ikusi ahal izateko. Jolasgura horretan, logikoa denez, igelak betaurrekoak urperatzeko bakarrik erabiltzen ditu. Animalia batetik bestera salto eginda kateatzen ditu egoerak, irakurketa arina lortuz. Mitxelena gaiari umorearen ikuspuntutik helitzen dio benetan dibertigarria egingo zaigun irakurketa honetan.

Istorioa xumea da, haurrei oso gertuko egingo zaiena. Jokin-mina pizten duten animalia hauek badute nolabaiteko xarma eta erakargarritasuna haurrentzat. Beti gaeuz ibiltzen diren misterioa izan daiteke, iheskorak direla akaso, edo batek daki! Ezohikoak dira eta, gainera, gaur egun, desagertzeko zorian omen daude. Ipuin honekin etxeko bihurtuko ditugu Mitxelena mintzaira literario aberatsa duela erakutsi digun (bigarren) honetan.